



EH Bildu eta EAJ-PNVk Euskal Preso politikoaren zigorren batuketaren inguruan mozioa:

“ZIGORREN BATUKETA

Finean, bi estatuen arteko zigorren batuketaz ari garenean, Frantziako eta Espainiako kondena ezberdinak zigor bakar batean bildu daitezkeela azaldu nahi dugu. Europar Batasunak zigor metaketa hau babesten zuen erabakia eman zuen 2008an (2008/675/JAI erabakia).

Erabaki honen bidez, europar komunitateko estatu ezberdinetako sententziak efektu berbera izan behar dutela zehazten da. Erabakia 2008. urtekoa izan arren, Espainiak ez zuen erabaki hau bere barne ordenamenduan sartu.

2014ko azaroan, Europako erabakia barne ordenamenduan sartzeko asmoz, Espainiak lege berri bate gin zuen, europar erabakiaren zentzua aldatuz eta beste estatuetako zigorren batuketaren aplikazioa oztopatuz. Horrela, **Frantziako kondena bete ostean, Espainiako zigorra antzeko akusazioengatik 0-tik hasten da**, Frantzian betetako espetxealdia kontutan hartu gabe.

Hori dela eta, Europar Komisioa azalpen eske egon da, eta nahi bezain aktibo aritu ez den arren, azalpenak eskatu dizkio espainiar Estatuari. Espainiak ez du ezer ere erantzun. Are eta gehiago, ez dio 2014ko azaroko espainiar legearen berri ere eman Europar Batasunari.

Espainiako Auzitegi Gorenean eta Entzutegi Nazionalean gai honekiko iritzi kontrajarri eta kritikoak badaudela badakigu. Auzitegi Konstituzionalak bertan aurkeztu diren kasuak ez ditu tramitera onartu. Ez da gaia eztabaidatzera ere iritsi. Ez du nahi izan.

Orain Europako Giza Eskubideen Auzitegira bideratuko dira kasu hauek, oinarrizko eskubide eta askatasunak urratu izanagatik. Guztira, **48 presori eragiten die** gai honek, eta horietatik **zazpik kalean beharko lukete** dagoeneko, kondena osoa beta dutelako.

Europako Giza Eskubideen Auzitegiak erabakia hartzen duen bitartean, **dagoeneko kalean beharko luketen presoei bagesa aderazteko eta Espainiak Europar Batasuneko erabakiak errespetatu ditzan eskatzeko Salatzen dut!**”

Oñati, 2017ko martxoa.